

## **ESKRIBAUTZAREN HIZTEGI TTIPIA, EUSEBIO ERKIAGAREN ESKUTIK**

Aspalditik dihardugu Eusebio Erkiaga idazle lekeitiarraren lan egina jorratzen, haren ekarria euskal letretan azaldu guran. Aspaldi horretan, zalantzarik ez, literatura arloko gorabeherak erakusgai eta gozaleku, edozein euskaltzalek ederto dakienez.

Ez, ordea, ezezagunagoa baita, bestelako kontu edo auturik. Izan ere, Eusebio Erkiaga, idazlea ez ezik, euskal itzultzailea ere badugu. Itzultzaile eta euskarari testu ekarle, bizitzan zehar anitzetan jantzi baitzituen hark euskal soinekoz erdal luma askoren testuak.

Euskal itzulpengintzan ari diren askoren aburuz, bereiztu beharra dago zer itzuli eta zeinentzat. Horretan, esan gabe doa, ez da besterik egiten itzulpenaren teoria orokorra baieztatutako baino. Horretara ere, literaturak, zientzietako arlo desberdinek, lege-administrazioak eta enparauek eskatuko lukete, besterik gabe, arloz arloko xehetasun, esate moldeak, ezaugarriak eta gainerakoak zehatz-mehatz azaldu, itzultze lan horren kalitatea bermatzeko.

Arrapaladan egindakoa, ostera, arbuiagarri eta gaitzesteko modukoa, batez ere euskararentzat, berak jasotzen baitu inolako galbaheirik gabe batetik eta bestetik etengabe datorkion tes-

tu uholdea. Nabarmen-nabarmena da euskarak azken urteotan izan duen gorakada, itzulpenak direla eta. Gaur egungo hizkuntza batek nekez egin diezaioke aurre inguruan duenari baliabide horretaz ez bada profitatzen.

Gauza jakinak dira aurreko horiek. Hala ere, esan beharra dago horietaz ere jabeturik zeudela aspaldian hainbat eta hainbat euskaltzale eta idazle, testurik esanguratsuen euskaratze lanetan paratuak.

Egundaino ez da horrenbeste itzuli euskara, esango du urliak. Berendiak, ordea, erantzungo dio itzultze horren datuek arlo zabalkundea adierazten dutela, arlo zabaltze horretan baitago gure gaurkoaren tankera. Zabal jokatzeko horrek, bistan da, nahitaez eskatzen du arlo bakoitzaren jakituria edo espezializazioa.

Bada, haatik, euskal sailean arlo berezirik. Noizbait adierazi dugunez, bi dira horiek eta bi-biok, berehala gailendu dira egunotan ere. Medikuntza eta lege-administrazioaren autuak dira horiek. Non-zer erraz horren zergatia, era-erara, biotan baita giza legea jokoan. Biotan, orobat, gizakia lagundu beharra, ondare, elkarbizitza zein osasun kontuetan.

Horrexegatik izan dituzte lehendik ere bi horiek, atzeraturik samar egon den euskal testugintzaren eremuan, halako aurre-erapen txiki eta xumeak.

Zilegi bekigu, alabaina, lege-administrazioarena aipatzea eta azpimarratzea. Hamaika neke eta izerdi sortu ditu horrek azken urteotan, Euskal Herrian ari diren administrazioen testuak euskaratu nahian. Lan aukerak ere bai, direla urte batzuk pentsaezina zena garaiotan mamitua eta gauzatua baitugu. Falta da, oraindik ere, erabateko irtenbidea asmatzeko abagunea. Bidean goaz eta bidekide ditugu, gurekin batera, bidean bertan diren horiekin batera, aurretiaz bide beretik ibili direnen eskarmentua. Menturaz, egunen batean bidaide izango ditugunak honetara ere ibiltzea pentsa dezakegu, gurea eurei eskualdatzeko gauza bagina.

## Eusebio Erkiaga, euskal itzultzailea

Bidegintza horretan bidaide izan zaizkiguneren artean —eta gogaide ere bai, esango genuke guk geuk, antzinako euskal errefrauari men eginez—, Eusebio Erkiaga dakargu gaur KAR-MEL honen orrialdeetara. Ez lehendabizikoz, jada hiruzpalau urte aipatu genituclako haren ahaleginak medikuntzaren aldetik. Bai, oster, eskubide osoz, zuzenbidearen arloan aipamen berezia zor zaiolako Erkiagari.

Nondik hori? galde dezake norbaitek, haren taxuzko itzulpenak gogoraturik. Izan ere, haiek dira gogoangarrienak, alegia, *Itunbe Ekonomikoa* —1981— eta *Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-Agiriak* —1979-1983—. Badira, haatik, ez bata eta ez bestea direnak, hirugarren norabide batekoak baino, hain zuzen ere, agiri publikoen eremukoak.

Labur ditzagun kontuak. Gauza jakina da Jose Maria Makua Bizkaiko Foru Ahaldun Nagusiak bultzatu zuela Eusebio Erkiaga, demokraziaren garai goiztiarretan, aurretiaz aipaturiko lan bi horiek, hau da, *Itunbe Ekonomikoa* eta *Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-Agiriak* egitera. Hortik sortu zena ezaguna da.

Bestelakorik, hots, gaur hona ekarri duguna, iturri desberdinetatik datorkigu. Bizitzaren zorteak ematen ditu, sarri-sarri ez bada ere, bai, oster, lantzean behin, norberaren ofizioak eta afizioak uztartzeko parada. Hala gertatu da gure kasuan ere, ustekabean egin baikara, haren familia tarteko, Eusebio Erkiagaren Hiztegi ttipi honen jabe.

Horra hor, Erkiagak ohi zuen txukuntasunaz, lerrokadetan sailkatua eta zertua, berak notariotegi batentzat atondu zuen hiztegiñoa. Lau eskritura izan ziren haren lan esparrua. Urtea, 1977. Notariotegi hori zein izan zehaztasun osoz jakin ez arren, bidezkoa da uste izatea Juan Tomas Enziondo jaunarena izan zela, eskribau hori ondotxo ezagutzen baitzuen Erkiagak, Lekeitioko notario urte luzetan izanda Enziondo jauna. Notarioen isilpekoa gorde behar eta ezin, hortaz, eskritura horien xehetasun gehiago eskaini.

Nolanahi ere, lekukotza zuzena ematen digu Erkiagaren Hiztegi ttipi horrek, hain justu ere, gerora egingo ziren hainbat saioren aurrekari bistakoa. Besteak beste, Erkiagak berak ondutako *Itunbe Ekonomikoa* eta *Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-Agiriak* euskaralpena eta ezbairik gabe, harik urte batzuetara euskal plazan ageri zen UZEI elkartearen *Zuzenbidea* hiztegia.

### **Hiztegi ttipi delakoaren ezaugarriak.**

Hiztegi anitza da, izan ere, hiztegi ttipi hori. Ttipitasunean ere, luze-zabalak hartzen ditu bere barruan eta betiere, zuzenbidearen alor desberdinetako hitzak eta esamoldeak. Gehientsuak zuzenbide pribatukoak, banakoen arteko gorabeheretan txiteanpitan erabiltzen direnak. Beste batzuk, aldiz, zuzenbide publiko esparrukoak. Besterik ere bada, eskriturari berari dagozkionak, hain zuzen ere. Horien barruan, beren-beregi, hamaikatxo esamolde berezko, notarioen zereginetan ohiko direnak.

Zernolakoa, hala ere, hiztegi horren tankera? Horretara gure burua jarriz gero, ezin ukatu erdibidekoa dela. Bateko, hitz berri batzuk sartzearen aldeko, besteko ere, hitz zaharren abarretan ibiltzearen kideko. Kideko eta ideko, edonola ere, premiazko dituen hainbat berba euskaraz jasotze orduan.

Adibidetegian sartuz gero, hona hemen apur batzuk, esandakoaren argigarri. Larramendi girokoak (*baitteslea, eraentza, egikaritu...*) Sabino Aranaren girokoak (*irazan...*), erakundeak (*Jabego Errotegia, Merkatalgo Errotegia, Epai-mahaiak...*), euskararen ondarekoak (*gozamina, baltzua, gaudimenak, jesan...*), Axularren usainekoak (*ongunde, endrezuak...*), esapide ihartuak (*gura duen edonor baztertuz eta saihestuz, eurek ere irakurteko eskubidea dutela gainera ohar eginik...*) eta guretzat, ezezagunak direnak ere (*tretak...*).

Gaiari dagokionez, esan daiteke lau eskritura horiek, legez jakiterik ez badago ere, ahalmen emate, testamentuaren inguruko eta salerosketa barrunbekoak direla. Agerian behintzat,

ez dago osterantzekorik, merkataritza sozietate, mailegu edo horien tartekoetan ohiko izaten direnak.

Gehienetan asmatzen badu ere, kontzeptu batzuetan zuzentzeko modukoa da. Esan dezagun, horren aringarri, erdaraz ere askotan ulertezinak diruditela arlo horretakoak. Ez albortu, dena den, Erkiagak, besterik ezean, asmatu beharra duela. Ezinbestean, jakina. Behartuta, seguru asko, eskura ez baitu aurrekaririk, testu sakabanatu batzuk baino.

Hitz batez esateko, Erkiagak lan eskuragarria eskaintzen du orrialde horietan zehar, gerora Bizkaiko Foru Aldundiaren itzul-tzaileek euren gain hartu eta jarraitu dutenaren aurrerapausoa, Makua jaunak berak bultzatua, Bizkaiko Foru Aldundiak halako agiriak euskaraz sina zitzaizkien. Harrezkero ere, agiri horiek euskaraz eta gazteleraz sinatzen dira, notario bakoitzaren ardurapean, euskarari legez dagokion ofizialtasuna egoki aitorturik.

Alperrik bilatuko du irakurle euskaltzaleak horren aztarnarik usu erabili izan diren hiztegietan. UZEIrenak ere, harako *Zuzenbidea* hiztegiak, ezin bibliografian eman isilean eta bazter zegoena. Gaur, ostera, KARMEL aldizkari honek gure eskura jartzen du, horren berri izan eta are garrantzitsuagoa dena, horretaz baliatzeko modua izan dezagun. Erkiagaren eragina dago orrialde horietako zutabe eta ilaren atzean. Haren luma eta espiritua ere begi-bistan, literaturaren ederrean ez ezik, eguneroko arazo eta agiri arruntetan, euskara bera horietan ere esatari eta eramaile izan dadin. Hizkuntzak komunikaziorako tresnak badira, esparru frankotara iritsi behar. Legearena ere, argi dago, hortxe bertan.

Hona hemen horren inguruko euskal saioa. Xumea, jakina, baina sustrai ganoraduna eta aintzat hartzekoa, halakoetan urri eta motz ibili zaigun euskararen historia bilakaeran.

*Andres Urrutia*

**HIZTEGI TIPI**

Notaritegi baterako prestau ditudan lau Eskrituretan erabilitako itzez eta esaldiz ornidua.

Bilbon, 1977 urrian.

---

**A**


---

Antzuzano	Larrain-atadia
Actor	Auzilari
Adherido, pegante	Deutsala
Arrendamiento	Eraentza (rekiko)
Aceptar, aprobar	Onartu
Autorizar	Onetsi
Asimismo, item	Orobat
Libre de toda relación arrendaticia	Errentapean artzemanik gabe
Adquirir	Beretu
Apropiarse	Beregandu
Advertidos del derecho que tienen	Eurek ere irakurteko eskubidea
Para hacerlo además por si (por) actos inter-vivos	Dutela gaiñera ohar egiñik
Apartando y excluyendo a quien quisiera	Bizien arteko egitadaz
(presta su) asentimiento	Gura duen edonor baztertuz eta saihestuz
De haberse observado	Onartzen du
En un solo)	Egitada bakarrean lege-eskari guztiak
(cuya) autorización	Acto jagon direla...
(para esta escritura de) apoderamiento	Eskutze au
Administrar	Podere emate eskritura au egiteko
Administrativo	Pentzudan (jarri) izan
Amojonamiento	Pentzudako
	Mugarriketak

Agrupaciones	Biltzeak
Segregaciones	Bereizkuntzak
Avalar	Baipena eraso, abalatu
Afianzar	Bermatu
Arrendamientos inscribibles	Akura azargarriak
Anticresis	Antikresis
Activa y pasivamente	Ar eta emanetan
Aseguramiento real	Gotortze areangoa
Aceptar adjudicaciones	Emateak onetsi
Aceptar	Onetz artu, (onartu) imitorio oharpenez ala gabe
(realizar) aportaciones de bienes	Ondasun ornitzeak egin
Asientos (en Registros)	Izkiriapenak
Acción	Egintza
(celebrar) actos de conciliación	Ongunde saioak egikaritu
(cualquier otro) acto previo al proceso	Auzia baiño lehen beste...
Aseguramiento real	Gotortze areangoa

---

**B**

---

(de todos los) bienes, derechos y acciones	ondasun, eskubide eta egikuntza guztiekiko gertatzaile
Bienes muebles e inmuebles	esku- eta lur-ondasunak
(dar o aceptar) bienes	Ondasunak eman ala onartu
Bienes comunes	Erkide ondasunak

---

**C**

---

Compadecer	Agertu
Comparecimiento	Agertu dana (den onek...) (direna/direnok...)

(a los) comparecientes	Aurrean agertuei
Consta de estructura	Bere egitura
Capacidad legal necesaria	Lege gaitasun premiñazkoa
Compraventa	Salerosketa
Cuadrado	Laurkatukoa
Comprar (adquirir)	Erosi (beretu)
Celebrar (acto de conciliación, etc.)	Egikaritu
Carga	Zama
(libre de cargas)	Zametaz jarei
Contrato de compraventa	Salerosketa egiune
Libre de cargas, de arrendamiento	Ez kargarik, ez eraentzепенik, ez ñor barruan duela
Carta de pago	Ordaintze agiri
De cuenta y cargo exclusivos	-ren kontura eta bizkar... zeharo
(de) conocerles y de todo lo	Ezagutzen ditudala eta erri jendaurreko-
Consignado	Tresna onetan ezarria oro
en este instrumento público	Mota
Clase	Arauak
Cláusulas	Nirekin batean sinatzen dute guztiok
(todos) conmigo firman	Baiteslea eta testiguak ezagutzen ditudala
(de) conocer al otorgante y a los testigos	Aipatutako zertzelada
(con sus expresadas)	Bakoitzarenez
Circunstancias personales	Poderea ematen duela
(que) confiere poder	Kredituak onartu
(aceptar) créditos	Kopuruak pagatu eta jaso
(pagar y cobrar) cantidades	Ituneak
Compromisos	Dirua eskuan ala gerorakotuan
Al contado o aplazado	Irazan/irasi/ipini
Constituir	Urtezorrak
Censos	



Cancelar (toda) clase de limitaciones o garantías	Zuritu Edozertariko mugatze eta bermeak
Contratar	Itundu, itun-egin
Concurso	Lehiaketa
Cuentas corrientes	Kondu joairakoak, (kondu lasterrak)
Canjear	Trukatu
Civil	Gizarteko, zibil
Concertar (tomar a prestado)	Jesan
Casación	Indar gabetze
Cancelar	Indargabetu
Comparecer	Burua agertu
Contencioso administrativo	Gizauzi pentzudako
Cuestiones incidentales	Ekai gertakariekikoak

---

**D**

---

(con) domicilio	Bizitoki
Domiciliado	Auzopetua
Descrita (finca)	Aipatu finka ori (onibar ori)
Dominio pleno (y en su defecto)	Jabetza betea (eta onen) faltan
Disponer (en su propio) derecho	Gertatzaile izan (bere buruaren eta...) eskubidean
Deslinde	Xedatze
Divisiones atalketak	(segregaciones = bereizkuntzak)
Dividir	Atalkatu
(nuevas) descripciones	Zehaztapen berriak
Derechos reales	Izatezko eskubide
Derechos personales	Pertsona-eskubideak

(firmar por) dominio	Jabetzarekiko siñatu
Depositar	Zaintzapenez jarri, zainope ezarri
Donaciones	Emaitzak
Derecho preferente de suscripción	Suskriiziño eskubide berezia
Desempeñar cargo	Kargua bete
Disolver	Ezdeustu
Dividendo	Irabazati
(oportunos) documentos	Dagozkien agiriak
(retirar y constituir) depósitos	Jaso eta ibeni (diru-depositu eta baloreenak)
Definitivos	Alderatekoak (behinbetiko...)
Demandado	Auzipeko

---

***E***


---

Exponer	Agiri jarri
Extensión	Luze-zabal (-era) (-ean)
(mediante) escritura autorizada	Ahalmendutako eskritura bitartez (beimenduriko)
(llevar a) efecto	Lotua egon (dagoela... jarraiko tratu-zertzeladei)
Estipulaciones	Tratu-zertzeladak
Enterados de su contenido	Idatzia dagoenez jakitun direlarik
Extendido (escrito)	Lerroztatua
(como) estimare conveniente	berak egoki deritzanez
(por ser fiel) expresión de su voluntad	Bere borondatearen agerpen zintzoa delako
Extendido en el presente solo pliego	Plegu soil onetan lerroztatua
(a cuyo) efecto	Eta orri buruz
Ejercer	Eragon
(que) ejercite...	Burutu ditzan

Ejerciendo todas las facultades	Eskurantzza guztien arituz (eragonez)
(declaración de) edificación	Etxegintza aitormen (Eraikintza)
Enajenar	Besterendu, ñorendu
Extinguir usufructos	Gozamenak iraungi
Ejercer el comercio	Merkataritzan jardun
Envios	Bialtzapen
Endosar	Bestearen gain eman / bizkarriztu
Efectos	Puskak
Equipo propulsor	Bulka-ekipa
Expediente de dominio y de liberación de cargas	Jabetza aterabideak
Expediente	Karga-jaregite aterabideak
Expediente judicial	Aterabide
Eclesiástico	Auzibide
Elevar peticiones	Elizarekiko
Excepción	Eskariak goititu
	Salbuespen

---

***F***

---

Finca	Lur-ondasun, / onibar
Rústica	Basa-ondasun
(y) firmar conmigo	Eta nirekin siñatu
Folio	Orrialde
Formar	Eratu, / Osotu
(doy) fe	Zin ematen dut
Facultades	Eskurantzak
Fijar	Tinkarazi
Fideicomisos	Zin ondareak (extinguir=osatu)
Firma	Siñatura, sinadura

---

**G**


---

Gasto	Eralgipen
Gastos que se originan de esta Escritura	Eskritura onengandiko diren eralgipen guztia
Gastos notariales	Notariarenak
Gastos fiscales	Zergarenak
Gastos del Reg. Propiedad	Jabego Errotegikoak
Y en general	Eta erabat
Gravar	Zergapetu
Garantizar	Bermatu
Garantías legales	Lege-gaudimenak / bermeak
Géneros	Salgaiak
Grado	Mailla
Giro	Igorpen / diru
Efectu	Igorpen

---

**H**


---

(expresados) hijos o descendientes	Esandako semeen edota ondorengoan alde
(mencionados) hijos y los demás que tuviere	Aipaturiko semeak eta gaiñerontzean izan ditzakeenak
Heredando los primeros por cabezas	Lehengoetarikoek euren banaketa ori buruekiko
Y los segundos por estirpes hipotecas	Eginez, eta bigarrenok, leiñuz gaudimenak, hipotekak (solvencias)

---

**I**


---

Intervenir	Eskuartu /bitarteko izan
Igual a...	Onen neurri osoa

Inscripción	Ezarkizun
Incluso	Eta orobat
Instrumento público	Erri jendeaurreko-tresna
Incapacidad para testificar	Lekukotasunean eragozpenak (zeintzuk diren jakin ondoren diñoenez)
(con o sin beneficio de) inventario	Imitorio oharpenez ala gabe
Impugnar	Jazarri
Incluso	Baita... ere
Inmuebles	Lur-ondasunak
Intereses	Etorriak / korrituak (dividendos = irabazatiak??)
Instar	Lehiarazi
Instancia	Jardun-eremu
Interponer	Ararteko sartu
Incidental	Gertakarietakoak

---

**J**

---

Juicio	Epaiketa
(a mi) juicio	Nire iritziz
Jurisdicción	Eskumende

---

**L**

---

(casa de) labranza	Lurlantze (-etxea)
Linde	Mugakide
Lindar	Mugakide izan
(hacer efectivos) libramientos	Ordain-agiriak bururatu
Laudemios	Laudemioak
Liquidaciones	Zor-garbitaketak
Liquidar	Garbitu

Legados	Ondarez gaiñekoak
Legítimas	Lege-etorkiñak
Librar	Tretatu
Letra de cambio	Treta

---

**LL**


---

Llevar la correspondencia	Bidaritza bildu
Llevar los libros	Kondugintza

---

**M**


---

Mayor de edad	Adiñez garerdikoa
(que) mide	Neurriz
(según) manifiesta	Diñoanez
Manifiesta (a mi)	Diraust
Modificar	Aldatu
Manifestar herencias	Jarauntsiak azaldu
Mandante	Manatzaille
Mandato	Agindua

---

**N**


---

Notario	Notari(a)
Notaria	Notaritegi
(cada uno en su propio) nombre	Bakoitza bere izenean
En su propio nombre	Berbere izenan
En su propio nombre	Bere buruaren izenean
Yo, el Notario (en ergativo)	Nik neuk, Notari onek, zin ematen dut
(por) naturaleza	Izatez

En nombre y representación del / de la otorgante	Baiteslearen izenean eta ordezkaritzan
(fijar) normas o estatutos de comunidad	Komunidade-arau edo estatutoak tinkarazi
Nombrar	Izendatu
Negociar letras	Tretak merkataldu
Notificación	Gaztiapen

---

**O**

---

Otorgar	Baitetsi
Otorgante	Baitesle
Otorga	Baitesten du...
(sin) ocupante	Iñor gabe
Otorgamiento	Baiteste
Obligación asegurada	Beharkun tinkatuak (bete ala ez...)
otorgar contratos de operar con	Itunbeak baitetsi -ekin lanegin

---

**P**

---

Proceso	Auzi
Profesión	Bizimodu, lanbide / ogibide
(sin) profesión especial	Bizimodu-lan berezirik gabea
Planta baja	Lur lerro
De piso bajo	Lur lerroko
Piso principal	Etxoin nagusi
Pertenecidos	-ri dagozkionak
Pegante	-ri deusala (adherido)
Perímetro	Ingurumen
Precio	Balio neurria

Plusvalía	Gain balioa (-rekikoa ere...)
Pliego	Plegu
y (el del) presente pliego	Eta onetantxe ere
Todo lo relativo a la parte piadosa	Elizgaiei dagokien guztia
(da y confiere) poder testatorio	Elkar-podere sartzea eman eta aldatu
(por) partes iguales o desiguales	Atal berdiñetan ala ezberdiñetan
(le) prorroga para ello el	Orretarako, lege epea...
Plazo legal por	Urtez gehiagoz luzatzen dio
Poder testatorio conferido	Emanik den testamentu-men
(a) partes iguales	Parte berdiñetara
(declaración de) plantación	Landaketa aitormen
(hacer y recibir) préstamos	Mailleguak egin eta artu
(en) pago o (para) pago	Ordainerako edo ordaintzat
Permutar	Truk egin
Pura o condicionalmente	Soilki ala baldintzaz
(con) precio confesado	Salneurri ezagutuz
Participación legal	Legezko kidetza
Posponer	Atzendu
Prendas	Baiturak
Prohibiciones	Galerak
Prestaciones	(aldizkako) endrezuak
(hacer) propuestas	(aldibateko ala biziartekoak)
Participaciones de herencias	Asmo agertzeak egin (eskeintzak)
Prácticas bancarias	Seniparte banaketak
(tomar) prestado	Bankari azturak
Pignorar valores	(oidurak, usadioak)
Provisionales	Jesan
Promover	Baloreak bahitu
Procedimiento	Behin-behinekoak
	Ernatu
	Egitate, eitate / bide



Penal	Zigorrekiko
Prestar	Prestatu
Procurador	Artadun (auzitegi eta Epai-mahaletako)

---

**R**

---

Residencia	Bizi egoitza
(que) radica en	-en dagoena
Registro de la Propiedad	Jabego Errotegia
Registro Mercantil	Merkatalgo errotegia
(en) representación (de)	-ren ordezkari delarik
(en) representación (de)	-ren ordezkaritzan (ari izanik)
(integramente)	Recibido osoro artuak
(hice las) reservas y advertencias legales	Egin nituen legearekiko itz zuhur eta oharrak
(al que) renuncian	Baiña utzi egin dute
Ratifican	Berronartzen dute
Reconocer deudas	Zorrak ezagutu
Renuncias	Utzipenak
Retraer	Birrekarri
Redimir	Jaregin (=liberar)
Repudiar	Bertan behera utzi
Renunciar	Uko egin
Retirar y remitir géneros	Salgaiak bildu eta bidali
Retirar la correspondencia	Bidaritza bildu
Rescindir	Utsaldu
Requerimiento	Zemai
Ratificación	Personal norberaren sendespena
Evocar	Isti-egin
Recursos de alzada (interponer)	Gora jo
Recurso	Elpide

Recurrir (aseguramiento) real	El-egin Gotortze areangoa
----------------------------------	------------------------------

---

**§**

---

Servidumbre	Tiramen
Servidumbre	Nahitaezko zorrak
Serie	Sail
Sometido a la compilación del Derecho civil Foral	-ko zibil-Foru Eskubide Bildumaren de meneko dela
Segregaciones	Bereizkuntzak (Agrupaciones= biltzeak) (Divisiones= atalketak)
Subasta	Erremata / Enkante, saltzearo
Sociedad conyugal	Ezkon-baltzua
Sociedad	Baltzua
Seguros	Aseguroak / asurantzak
Sucursal	Etxakide
Solicitar asientos en	-n izkiriapenak eskatu
Secuestro	Atxikimendu / bahimendu

---

**T**

---

(a, por) título (de)	Karia / kariaz
Transmitir	Esku-aldatu
Testigo	Testigu, lekuko
(otorgar) testamento	Ilburukoa egin
Testador	Testatzaille
(por) testamento	Testamentu bidez
(sin) tacha legal	Legez kontrako utsik gabeak
(en los más amplios) términos	Mugarik zabalenez
Transacciones	Autsi-mautsiak, eragakitea (ejercicio, operación)
(autorizar) traspasos	Zehar-aldapenak onetsi esku-iragopenak

Transporte	Lorreta /garraioa
Transpaso de local de negocio	Garatz-tokien eskuiragopen itunbeak
Transferir	Jabez aldatu
Trámite	Jarraikun, autsi-mautsiak / Biderapen, ibilurrats
Tribunales (en los)	Epai-mahaietan

---

**U**

---

Uso	Gozamen
(hacer) uso del derecho	-k ematen dion gozamenaz
Que le concede	Baliaturik

---

**V**

---

(última) voluntad	Azken-nahia
A voluntad de su esposa	Emaztearen gogara
(y por) vecindad	Eta bizitokiz
De esta vecindad (son)	Bizierri hontakoak dira
En voz alta	E ahots gorakiz eta osorik
Integramente este testamento	Testamentu au...
Vecino de	-ko bizikaria
Vencimiento	Elmuga baiño lehen, ala ondorean.